

GORKA ARTOLA ALBERDI Begarako Udaleko Alkateak emandako

DEKRETUA

2023ko otsailaren 17an emandako Dekretu baten bitartez onartu ziren Erramu Zapatuko feria dela eta, 2023ko apirilaren 1ean Euskal Labela duen produktua erreta saltzeko jarriko den txosnaren ustiapena arautuko duten oinarriak.

Oinarri horietan aurreikusten zen honako hau 3. Artikuluko a) puntuan:

- a) *Txosnan bertan prestatutako Eusko Label kalitatea duen produktua saldu beharko da, sagardo, ardo, ura edo antzeko edariekin lagunduta. Bi produktuen prezioa gehienez ere **2 euro** izango da. Eskatzen duenari edaria ala eskaintzen den janaria bakarrik saldu ahal izango diote, eta kasu horretan bakoitzaren prezioa ezingo da **euro 1** baino gehiago izan.*

Prezio horiek egokitu beharra daudela iritzita,

ERABAKI DUT:

Oinarrietako 3. artikuluko a) puntua aldatzea honela utziz:

- a) *Txosnan bertan prestatutako Eusko Label kalitatea duen produktua saldu beharko da, sagardo, ardo, ura edo antzeko edariekin lagunduta. Bi produktuen prezioa gehienez ere **2,5 euro** izango da. Eskatzen duenari edaria ala eskaintzen den janaria bakarrik saldu ahal izango diote, eta kasu horretan bakoitzaren prezioa ezingo da **1,5 euro** baino gehiago izan.*

Gazteleraz berriz:

- a) Deberá venderse el producto de calidad Eusko Label preparado en la misma chozna, acompañado de sidra, vino, agua y/o bebidas similares. El precio máximo de ambos productos será de **2,5 euros**. A quien lo solicite se le podrá vender la bebida o el producto que se oferta de forma separada, en cuyo caso el precio no podrá ser superior a **1,5 euros**.

Hau da Alkateak agindu eta sinatu duena, Bergaran 2023ko otsailaren 28an; eta nik, Idazkariak, ziurtatua.

